



# JOSUNE MUÑOZ

## Filologoa eta Skolatika Literatura Eskolako zuzendaria

Testua Cristina Mtz. Sacristán · Argazkiak Karlos Corbella

• • •

“Emakumezkoek idatzitako literaturarekiko aurreiritziak hor jarraitzen du”

Josune Muñoz (Bilbo, 1967), euskal filologoa eta ikertzailea, duela 12 urte emakumezko egileek egindako literaturaren inguruan antzemandako “hutsune akademikoa” arintzera menturatu zen. Metodologia berritzailearekin, ezagutza aberatsekin, pertseberantzia handiarekin eta diskurtso irmoarekin, Josune gaur egun emakumezko ehunka ikasle (eta hamarka gizonetzko) hezi izana, 5.000 funtsetik gora bildu izana eta areagotzen ari diren ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, ahalduzko eskolak... eman izana ospatzeko moduan da. Azken urteetan emakumezko egileen komikietan duen espezializazioa maila harrigarrietaraino sendotu du. Eroso sentitzen da genero horrekin; “belaunaldi berriei literaturarako sarbidea erraztu diezaiekeela” uste du eta, horrez gain, begi-kolpe txikietan gizarte patriarkalak emakumeen aurkako biolentzia gauzatzen jarraitzeari buruz zerrendatzen diharduen analisiak islatzeko aukera ematen dio.

Josune kolorez inguratuta dago. Mónica Lignelli argentinarren xehetasunez betetako pinturarenak eta bere milaka liburu eta argitalpenenak, esaterako. Mahai luzeak Literatura Aretorako gonbitea egiten du. Josuneren begirada eta ahotsa eztiak dira batzuetan, baina erronkatik ere asko dute. Skolastikan gaude eta bertako zuzendariak oso adierazgarriak diren komiki-marrakiz osatutako panelak erakusten ditu: kolpe edo bortxaketaren aurrean atsegin aurpegia duten emakumeak, irainak, emakumezkoak gauza edo haur bihurtzea... Berriki egin diren erakusketa eta hitzaldietan inpaktua eragiten ari diren eta “sistema patriarkalaren begiradak” islatzen dituzten irudiak.

**Noiz hasi zinen genero gisa komikiarekiko interesa izaten?**

Skolastikako zuzendari izan aurretik jada irakurtzen nituen komikiak ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz. Komikien frikia naiz, beti txoratu izan naute. Jakinminezko atalak zituen; mangara ere hurbildu nahi nuen, baina gaitzespena eragiten zidan; hala ere, feminismoa ikertzen eman ditudan urteetan ezer ezin dela gaitzetsi ikasi dut. Are gutxiago literaturan. Eta gutxiago milioika lagunak irakurtzen duten zerbait. Halere, solaskidea emakumea bada, uler dezaket komikiarekiko aurrez aurreko nolabaiteko gaitzespena izatea. Are gehiago 80ko eta 90eko hamarkadetan irakurtzen bazuen.

**Emakume lizun haiek agertzen zirenean, 4 zentimetroko titiburuekin...**

Hori da, gogoan izan gaiak agortzeak, sektoreko krisiak eta emakumeek erabaki eta aginte alor orotan zuten pre-

sentzia deusezak ia emakume guztiak at utzi zituen komikiaren misoginizazioa eta pornografiazioa ekarri zuela 1980ko eta 1990eko hamarkadetan. Horretaz ari garelara, bular hori gaixotasuna da (erakusketetako irudi bat erakusten du).

**Barbie panpinaren ezinezko gorputza bezala...**

Bada, bularraren eta gerriaren arteko proportziorik eza Barbierena baino are larriagoa da emakumezko heroi guztiengan. Komikiak badu erantzukizunik saltzen diguten sexu-ereduari dagokionez. Sortzen diren irudiekiko eta horiek helarazten dituzten mezu sozialekiko erantzukizunezko deia egin beharra dago. Zure irudiek emakumeak mintzen badituzte, ez dizkizut argitaratuko.

*Persépolis* izan zen emakumeen komikiaren historia aldatu zuena. Iragana-



ren eta geroaren arteko aldaketa ekarri zuten. Hori horrela, Errusian egiten ari ziren komiki mota ikusi eta horri buruz teorizatu ahal izan dut. Komiki mota hori ez zeukaten ikusita, eta itzulita ere ez zegoen.

### **San Petersburgon, aldiz, nazioarteko biltzarra egiten da urtero, ezta?**

Bai, baina Finlandiarantz, Suediarantz, Alemaniarantz... gehiago begiratzen du; artistikoagoa den komikia dute hizpide (Spring Comic-eko argitalpen bat erakusten du). Feminismoa berriro bizi-rik ikusten dut bertan. Interneten egiten ari diren komiki-irudi guztiak, neska gazteenak... mugimendu feministak behar zuten aire freskoaren parte dira.

### **Beste herrialde batzuetan emakumezko egileei buruzko ikasketa arautuak daude, baina hemen Skolastika sortu behar izan zenuen horiek ezagutarazteko. Hain atzeratuta al gaude?**

Bai, bai... Izan ere, gizarte espainolaren matxismoa oso handia da. Eta komikiaren munduko matxismoa ere bai. Historikoki gizonetzkoen eskuetan egon den adierazpen kulturala da, sexismo eta misoginia maila oso altuekin. Errealitate historikoa da. Nire lanean gizonetzkoen kostea egiten zaie ikustea diziplina akademiko boteretsu batean lan egiten duen emakumezko espezialistak daudela, eta hori arazo handia da. Sexismoari eta misoginiari buruz teorizatzen hasten naizenean, denek beren burua aipatuz jotzen dute. Ez naiz misoginoa zarenik esaten ari, diodana da emakumeei kalte egiten dieten begirada misoginoak daudela. Begirada misoginoak baduzu eta hori aldatu nahi badugu, ordea, horretaz jabetzea da lehen urratsa. Hain maskulinizatuta dagoen munduan, teorialari feministek oztupo bikoitza dugu beti. Gure presentzia deserosoa da, azpimarra ezazu.

### **Ikleri eta kritikari izateaz gain, idazleztzat ere ba al duzu zure burua?**

Literatortzat har nazakezue. Begira, sistema literario guztiak egileen eguzki handiaren jirakoak dira, baina ez dago beste eguzkirik gabeko sistema literariorik, irakurtzen duen jende gabekorik, alegia. Goi mailako kultura delakoak plataforma unibertsitarioetatik sortuak izan dira askotan, kultura bizitzeko modu oso

maskulinoarekin, sorkuntzaren eguzkia azpimarratuz. Baina ez nahikoa harre-raren munduan. Nire lana emakumeek literatura lantzeko izan duten moduari buruzko hausnarketaren emaitza da. Dinamizatzaile literarioaz gain, neure buruari literato deitzea gustuko dut, literatoen pertsonaia historikoa, salonistena, berreskuratzen dudalako; gaur egun maila profesionalean egiten dena egin dute beti: harreraren mundua dinamizatu.

### **Erresuma Batuan esaterako, ikasketa arautuak dauden arren, emakumezko egileen literaturaz modu berezian hitz egin behar izatea jada sintoma txarra da... atzerapen historikoa, ezta?**

Kultura merkaturatzea da arazoa. Horrez gain, kultura pastel erraldoia izango balitz bezala bizi dugu. Gizonetzkoak

“Kulturarako sarrera baduzu, diskurtsorako sarrera duzu. Diskurtsoa baduzu, boterea duzu”

izan dira pastel horretaz bizi izan direnak. Bada atal bat gaitasun teorikoarekin, ekonomikoarekin, praktikoarekin... zerikusia duena. Kultura, literatura, komiki eta abarren merkaturatze hain zorrotzak gaitzespen handiarekin ere badu zerikusirik, zure pastel zatia hartzera baitatzoz.

### **Azken aldian gizonetzkoek emakumezkoek idatzitako liburuekiko interes handiagoa dutela antzeman al duzu edo oraindik ere emakumezkoek sinatutako literaturak estigma izaten jarraitzen du?**

Tira... emakumezkoek idatzitako literaturarekiko aurreiritziak hor jarraitzen du. Emakume askok argitaratzea albiste izaten den aldi oro ikusten dut aurreiritzi hori. Ezohikotzat hartzen da oraindik ere. Egia da esateko dudana arretaz entzuten duen gizonetzkoen kopurua

gero eta handiagoa dela. Errealitatean, ordea, irakaskuntzetako eskuliburuek emakumeak baztertzen jarraitzen dute – irakaskuntza lanbide gisa oso emakumetuta dagoen arren-. Inoiz baino emakumezko egile gehiago dauden arren, algitalpenak gizonetzkoen eskuetan jarraitzen du eta kritikak ere... Hortzez eta haginez defendatzen duten agintere-mua da... eta errespetua galdu behar badizute, galdu egiten dizute.

### **Kalitate-araua aipatzen duzu beti emakumezko idazleek “historikoki gainditu behar izan dituzten oztupo matxisten” artean.**

Diagnosi egokia egiteko, arauak nola funtzionatzen duen jakin behar da. Arau literarioa sortu, editatu, materialei buruzko kritikak egin eta irakasten dituztenen ingurukoa da. Bai, emakumezkoak autoretzara heldu dira, baina iritsi al dira argitalpenera? Euskal literaturan, esate baterako, emakumeen lau belaunaldi ari dira literaturan lanean. Mirari historikoa da. Ez dago emakume argitaratzailerik, ordea. Argitaletxe feminista bakarra dago, Edo. Dena modu boluntarioan egiten dute. Metodologia desberdina da: merkaturatutako argitaletxeen merkatura bestela iritsiko ez liratekeen materialak argitaratzeaz arduratzen dira. Zer material ez dira merkataritzakotzat jotzen? Nagusiki emakumezkoenak. Aurreiritzia dute oinarri.

### **Emakumezko zenbait egilek, Bahiyih Nakhjavani-k kasu, emakumeek idatzitako liburuen apalak etiketatzea ere diskriminatzailea izan daitekeela uste du...**

Bai, baina ez da berdintasunera eramango duen urrats bakarra egongo. Zenbaitetan hori gertatuko da, positibitate ghettoak sortuko dira. Aukeratutako ghettoak baitira. Azken xedea hori unibertsitatean egotea da, jakina. Ni naiz lehena jabetzen egoera hori ez dela ideala. Egoera ideala suertatu arte, dena den, hala beharko du.

### **Zein proiektutan hartzen duzue parte?**

Bizkaiko Foru Aldundiak, esaterako, nire tailerrak abian jartzen ditu, literatura-eskaintzan genero-eskaintza bat falta zaiola ohartzen delako. Hainbestekoa da tailerren arrakasta, hainbeste dira izena ematen duten emakumeak, talde bat zabaldu beharrean hiru zabaltzen di-



tuztela. Euskal erakundeek berdintasunarekin duten konpromisoaren adierazgarri da nire ustez. Durangoko Azokan *Emakumeak eta Euskal Literatura* tailez araren alde egin zuten...

#### **Eta emakumezko ikasleen ekarpenak...**

Emakumezko ikasleek lehen biziraupena ekarri dute. Emakume horiek guztiak, anonimoak, adin eta egoera guztietakoak, leialtasun bikaina erakutsiz. Horizontaltasunari buruz asko teorizatu dut: eskaintza baldin badago, eskaera sortuko da. Emakumeek beren historia ezagutzeko, kalitatez irakurtzeko eta, batez ere, jakintzarako gose dira. Gogoan izan unibertsitateko ateak mende luzeetan, luzaroei, itxita izan ditugula.

**Emakumeak ezkutuan, historian zehar. Asmatzaile, musikari, idazle... bikainak. Zenbaitek, George Sand-ek kasu, gizonen izurak egin behar izan zituzten. JK Rowling-ek ere berriki sinatu du bere inzialekin...**

Emakumeak beti jabetu izan direla gizar-tean zuten benetako eginkizunaz ikustea da interesgarria. Emakumeen begirada

ludikoak, idazle bikainak diren arren, hurrengo urratsa argitaratzea dela irakasten die. Errealitate historikoaren arabera, argitalpen-sistema maskulinoa eta misoginoa izan da. Dena oztopoz beterik egon da emakumeentzat eta harrigarria zera da, oztopo horiei aurre egiteko abian jarri dituzten estrategiak ezagutzera. Gizonezkoen izenak hartu dituzte, modu anonimoan sinatu dute eta lanak bere kabuz hitz egin zezan utzi, ondoren autoretza aldarrikatzeko...

#### **Kulturak hainbesteko boterea ematen al du?**

Bai horixe. Kulturarako sarrera baduzu, diskurtsoarako sarrera duzu. Diskurtsoa baduzu, boterea duzu. Diskurtsoa eta sentzibilitate soziala sortzeko boterea. Zergatik itxi zizkieten gizonen izenak unibertsitateko ateak emakumeei? Berriantzat bakarrik nahi zuten boterea zelako eta, gainera, emakumeen gutxiengoak teorizatzen zuten diskurtsoa zelako. Nor bai eta nor ez erabakitze ahalmena ematen duen diskurtsoaz jabetzea botere handia da.

Horregatik emakumeek mehatxutzat

hartzen gintuzten. Diskurtsoarako sarrera zertarako nahi dugun beste kontua da. Hori nahi dudala aitortzen dut, baina ez erabilera pertsonalerako...

#### **Ez gutizia gisa.**

Ez, ez egoaren gutizia gisa. Diskurtso horrekin sentzibilitate soziala aldatzearekin du zerikusia.

Komikia eskatzen didaten lekuetan, gazteek eskatzen didate. Unibertsitatean, irakasle atzerakoiak erretiratzen ari dira eta belaunaldi berriek bestelako sentzibilitateak dakartzate. Egiten dizkidaten enkarguetan ikusten dut: literaturaren irakaskuntzan komikia txertatzeari buruzko udako hitzaldia antolatzen duena ni baino gazteagoa da.

#### **Berri ona ere bada.**

Bai, institutuetan ere bai. Sentzibilitate feminista duten emakumeek enkargatzen dizkirate materialak. Emakumearen atala indartsua bada, produktu feminista eskatuko ditu. Oso produktu ona, seriozitatez lan egitea, erakusketa horien antzera inpaktu handia duten gauzak edukitzea... da xedea. Irakurketa posi-

tiboa egiten duen norbait baldin bada, hori ni naiz.

### **Atsegingarria izango da palanka hori munduan jartzea...**

Aurreiritzi asko topatzen da... Mutiletako batek honela dio adiskideari: "Feminista da, baina literaturaz izugarri daki, e!".

### **"Baina". Akatsa izango balitz bezala.**

Bai, noski. Izan ere, gizartean aktibo dauden pentsamendu-sistema guztien artean arriskutsuena feminista da, oinarri guztia desmuntatuko duelako. Ez baitu irakurketa ekonomikoa, ekologikoa... egiten: garrantzi teoriko handia du, patriarkatuaren oinarrietara doana. Kalte gehien egin diezaiokeena da, horregatik, desitxuratuena, barregarrien utzitakoa eta histerikoena izan behar du.

### **Laura Freixasek, Amelia Valcárcelek eta zuk maitasun erromantikoari buruz eztabaidatu zenuten azaroaren 25ean. "Printze urdinek" kalte handia egin dute, ezta?**

...baita berdintasuna oztopatu ere. Egin beharreko lanari buruzko diagnosis egiten duzunean, beldurtuta geratzen zara. Egiaztatu beharreko gauzarik izugarrietako bat diskurtso sozial guztiek emakumeen aurka ituna egin dutela baita: diskurtso artistikoak, politikoak, legalak, ekonomikoak eta maitasunezkoak.

### **Menderatzea. Non dago jarrita, baina, bikotea eduki behar dela? Beti ez da eduki behar...**

Idatzita dago. Eleberri askotan, abestietako letretan, komikietan eta leku askotan.

### **Gabeziatzat hartzen da, ordea. Aukera izan daiteke, trantsizioa...**

Gogoan izan behar duzu emakumeek oinarritzko eta lehentasunezko bizi-proiektu gisa proiektu sentimentala edukitzeko hezten gaituztela. Beste edonolako izaera duen bizi-proiektua duen emakume oro frustratu eta osagabetzat hartuko da. Gizarteak oraindik ere helburu hori inposatzen baitu emakumeen funtsezko helburu gisa. Gizonezkoentzat proiektu sentimentala bigarren mailakoa da. Gizonezkoek proiektu intelektuala, ekonomikoa, militantea, politikoa... izan dezakete. Guk ez. Diskurtso sozialak dio izaki emozionalak garela, eta, hain zu-

zen, ideia hori iraunarazteko modua da.

### **Zer moduz ikusten duzu berdintasunaren osasuna Euskadin? Tratu txarren zifrak kezkarriak dira...**

Gogoan izan behar duzu emakumeen aurkako indarkeria patriarkatuari eusten dion oinarrietako bat dela. Emakumeek mendeetan zehar ez baikara egon gure borondatez egon garen lekuan. Indarkeria, beldur eta heriotza askoko lana egon da. Orain gertatzen ari dena zera da, hori bistaritzen ari dela.

### **Punta bat dago emakumeen emantzipazioaren aurrean?**

Orain, historian lehenengo aldiz, emakumeek bizitza autonomoa egin de-

"Gizartean aktibo dauden pentsamendu-sistema guztien artean arriskutsuena feminista da, oinarri guztia desmuntatuko duelako"

zakete. Lehen zergatik ez zituzten hainbeste hiltzen? Ez zirelako dibortziatzen. Ez zuten ekonomikoki nola biziraun. Beren senarrak utziz gero, seme-alabak galtzen zituzten. Emakumeek beren bikotea utzi ahal izateko aldaketa sozialak gertatu dira. Hori bai, berrikuntza historikoa da eta fenomeno sozial berri horiek dira emakumeen aurkako indarkeria berriro aktibatzen dutenak. Patriarkatuaren parte da. Modu biolentean eutsi behar zaio, naturala ez delako, sistema bidegabea da berez.

### **Esklabotasunaren itxura ematen du.**

Hala da, patriarkatua behin eta berriro moldatzen ahalegintzen da, beti izan den bezala iraunarazteko. Emakumeen

aurkako indarkerian oinarritu da beti eta hori asko kostako zaigu erauztea. Hainbeste dira biolentzia mailak... Albigetietan ematen dutena basatiena eta muturrekoena da. Hala ere, emakume guztiok bizi ditugu beste mailak etengabe.

### **Horrez gain, krisia alderdi erregresiboak sortzen ari da: independizatu ezin duten seme-alabak, hipoteka dela eta banandu ezin diren bikoteak, langabezia gehiago...**

Bai, biolentzia sistemikoa da. Krisi ekonomikoetan ekonomiak arreta biltzeko ituna gertatzen da. Eskubideak eta berdintasunaren aldeko borroka bigarren mailara igarotzen dira. Gure borrokkak itxaron egin behar du beti.

### **Beste herrialde batzuetan, Alemanian eta Norvegian esaterako, ia dena aurretik doa: hezkuntza, osasuna, eskubide sozialak... Hala eta guztiz ere, tratu txarreko kasuak ere badira. Herrialderik aurreratuenetan ere emakumea al da gehien galtzen duena?**

Hala izateko pentsatuta dago dena. Hemen, hala ere, biolentzia motak muturrekoagoak dira eta han neurtuagoak daude. Alkoholismoa, esaterako, hemen sozializatorako tresna gisa txertatuago dagoen arazo soziala da eta adierazpen biolentia asko gaizkitzen du. Nolanahi ere, Europako eremu horretako erdiespenak handiagoak direnez, beti harantz begiratzen dugu.

### **Benetako aldaketa emakumeok gure aldarrikapenetan argiak bagara gertatuko dela uste duzu edo eginkizun paritarioa dela uste duzu?**

Aldaketa soziala da, gizon-emakumeok aldatu egin behar dugu. Nire seme-alabengan ikusten dut, hor daudela begi bistakoa da eta beste begirada batekin hezi behar ditugula.

Egunen batean lagundu gintuzten gizonaen historia idatzi beharko dela pentsatzen dut. Mendeetako oinaze eta amorru gehiegi daramagu herrestan, baina erakarri eta gure etsaia sistema dela —eta ez haiek— irakatsi diezaikegu. Gogoan hartu beharko dira sustatzaile izan ziren aitak, liburutegia zabaldu zuten osabak, herentzia utzi zuten aitonak, laguntza eman zuten senarrak... Atal hori suspertzea su-eten ona litzateke.